

**1746/2022 EBAZPENA, abuzturaren 25eko, Donostialdeko ESIko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Donostialdeko ESIko Neurologiako Osasun Atal Sanitarioko burua (Kanpo-kontsulten Arloa) hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.**

#### AURREKARIAK

Donostialdeko ESIko zuzendari gerentearen otsailaren 18ko 131/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Donostialdeko ESIko Neurologiako Osasun Atal Sanitarioko burua (Kanpo-kontsulten Arloa) izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko uztailaren 21eko EHAA 141 zk. eta 2022ko abuztuaren 2ko BOE 184 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko abuztuaren 24an amaitu zen.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Donostialdeko ESIko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez.

#### EBAZTEN DUT

Lehenengoa.– Donostialdeko ESIko Neurologiako Osasun Atal Sanitarioko burua (Kanpo-kontsulten Arloa ) izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Donostialdeko ESIko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Donostian, 2022ko abuztuaren 25an

Donostialdeko ESIko zuzendari gerentea  
Langileen zuzendaria.  
(53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa)



Esther LITAGO SOLA

 **Osakidetza**  
DONOSTIALDEA ESI  
OSI DONOSTIALDEA

**LANGILEEN ZUZENDARITZA**  
DIRECCIÓN DE PERSONAS

## 1. ERANSKINA

### **DONOSTIALDEKO ESIKO NEUROLOGIAKO OSASUN ATAL SANITARIOKO BURUA (KANPO-KONTSULTEN ARLOA) IZENEKO LANPOSTUA**

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Javier RUIZ MARTINEZ

Baztertuak:

- Inor ez

Donostian, 2022ko otsailaren 22an